



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN TXOSTENA, BASTIDAN GAS PROPANOA HORNITZEKO LAGAPEN-KONTRATUAK LEHIA MURRIZTEN DUEN ETA INTERES OROKORRAREN AURKAKO PRAKTIKARIK EKAR LEZAKEEN JAKITEKO EUSKO LEGEBILTZARRAK EGINDAKO KONTSULTARI DAGOKIONA.**

**Espedientea: I-3/2013**

Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kontseilu burua

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Bilbon, 2014ko irailaren 25ean

### **AURKIBIDEA:**

TOCLEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAK (AURRERANTZEAN, LEK), GOIAN ADIERAZITAKO PARTE-HARTZAILEEK OSATURIK, TXOSTEN HAU EGINDU, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK ESKATUTA.

### **I. Aurrekariak**

1. 2013ko azaroaren 19an, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren idazki bat jaso zuen, non jakinarazten baitzen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Batzordearen 2013ko azaroaren 13ko bilkuran onetsitako 172/2013 Legez besteko proposamena, Bastidako udalerrian gasa banatzeko emakidari buruzkoa. Honela dio idazkiak:

«1. Eusko Legebiltzarrak Lehiaren Euskal Agintaritzari eskatzen dio urgentziaz egin dezala kontsulta-txosten bat, Bastidan gas propanoa hornitzeko lagapen-kontratuak lehia murrizten duen eta interes orokorraren aurkako praktikarik elkar lezakeen jakiteko.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarraitu dezala aholkularitza eskaintzen propano-gasaren horniduran kostu handiak nozitzen ari diren udalerriei, eta jarri ditzala ahal diren bitartekoak haien eskueran, gas-instalazioen liberalizazioa lortzeko eta konpainia hornitzaile berriak bilatzeko».

2. 2013ko abenduaren 3an, LEAk dokumentazio-eskaera bat helarazi zion Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari, txostena egin ahal izateko beharrezko informazioa jasotzeko (REPSOL BUTANO S.A.-ri administrazioaren



emakida esleitzen dion espedientearen kopia; Bastidako gas-fakturen prezioa dela kausa, kontsumitzaileak ezarritako kexei buruz Eusko Jaurlaritzak egindako txosten teknikoaren kopia; gaiaren inguruko beste informazio interesgarri oro).

3. 2013ko abenduaren 5ean, LEAk dokumentazio-eskaera bat helarazi zion Bastidako Udalari, txostena egin ahal izateko beharrezko informazioa jasotzeko (Udalean dagoen, administrazioren emakida izapidetzen duen espedientearen kopia; Bastidako gas-fakturen prezioa dela kausa, kontsumitzaileak ezarritako kexei buruz Udalak egindako txosten teknikoaren eta juridikoaren kopia; gaiaren inguruko beste informazio interesgarri oro).

4. 2014ko urtarrilaren 15ean Bastidako Udalak eskaerari erantzunez helarazitako idazkia sartu zen LEAren erregistroan.

5. 2014ko urtarrilaren 17an Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eskaerari erantzunez helarazitako idazkia sartu zen LEAren erregistroan.

## II. Lehiaren Euskal Agintaritzaren eskuduntza

6. 1/2012 Legearen 3.5. artikuluan xedatutakoaren arabera "Euskal Autonomia Erkidegoan lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan, organo aholku-emaile izango da Lehiaren Euskal Agintaritzza<sup>1</sup>. Zehazki, ondorengo erakundeek eskatu ahal izango diote aholkua lehiaren eremuan: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, Batzar Nagusiek, Foru Aldundiek, udalek, lanbide-elkargoek, merkataritza-ganberek, enpresarien elkarteek, sindikatuek, eta kontsumitzaile nahiz erabiltzaileen elkarteek".

Bestalde, aipatu 1/2012 Legearen 10.k artikulua Lehiaren Euskal Kontseiluari esleitzen dio «lege honen 3. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen diren irizpenak egin eta onartzeko» eginkizuna.

7. Arau horietan xedatutakoa betez, txosten bat egin behar du Lehiaren Euskal Kontseiluak, aipatutako eskaerari erantzuteko.

## III. Txostenaren irismena

8. Txosten honetan, Arabako Bastidako udal-mugarteko etxeak eta komertzioak gas propanoz hornitzeko eta beroietara gasa banatzeko merkatuaren lehia-

---

<sup>1</sup> Otsailaren 2ko 1/2012 Legea, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk., 646. or.).



baldintzak aztertzen ditu LEAk. Arabako udalerrri horretan gasa hornitzeko eta banatzeko administrazio-baimena REPSOL BUTANO S.A.-<sup>2</sup> (aurrerantzean, REPSOL) enpresak du.

## IV. Aplikatu beharreko araudia

**9. PGLaren hornikuntzari buruzko araudi aipagarria Hidrokarburoen Sektoreko 34/1998 Legean (aurrerantzean, 34/98 Legea) jaso da<sup>3</sup>. Legeari aldaketa**

<sup>2</sup> Repsol Butano, S.A. 1957an sortutako enpresa da. 58 milioi euroko gizarte-kapitala du eta, 2011n, 969 langile zituen. Enpresaren jarduera ekonomia-jardueren sailkapen nazionalan (EJSN) sartzen da: 3522 – Hodi bidezko gas-erregaien banaketa. 2011n, 1.400 milioi € inguruko negozio-zifra zuen.

<sup>3</sup> Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legea (1998ko urriaren 8ko BOE, 241. zk.), honako hauek aldatzen dute: uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuak, hazkunderako, lehiakortasunerako eta eraginkortasunerako premiazko neurriak onartzekoak (2014ko uztailaren 5eko BOE, 163. zk.); Elektrizitate Sektoreko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak (2013ko abenduaren 27ko BOE, 310. zk.); abenduaren 13ko 15/2013 Errege Lege Dekretuak, «Administrador de Infraestructuras Ferroviarias» (ADIF) enpresa-erakunde publikoa berrantolatzeakoak eta ekonomia-arloko beste premiazko neurriei buruzkoak (2013ko abenduaren 14ko BOE, 299. zk.); urriaren 29ko 17/2013 Legeak, uharteetako eta penintsulatik kanpoko sistema elektrikoaren horniketa eta lehiakortasunaren areagotzea bermatzekoak (2013ko urriaren 30eko BOE, 260. zk.); uztailaren 26ko 11/2013 Legeak, ekintzaileak laguntzeko eta hazkundera eta enpleguaren sorrera sustatzeko neurriei buruzkoak (2013ko uztailaren 27ko BOE, 179. zk.); ekainaren 4ko 3/2013 Legeak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzekoak (2013ko ekainaren 5eko BOE, 134. zk.); otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuak, ekintzaileak laguntzeko eta hazkundera eta enpleguaren sorrera sustatzeko neurriei buruzkoak (2013ko otsailaren 23ko BOE, 47. zk.); martxoaren 30eko 13/2012 Errege Lege Dekretuak; elektrizitatearen eta gasaren barne-merkatuei eta komunikazio elektronikoei dagozkien zuzentzarauak transposatzen eta elektrizitate- eta gas-sektoreko kostu eta diru-sarreraren arteko oreka ezaren desbideratzeak zuzentzeko neurriak hartzen dituenak (2012ko martxoaren 31ko BOE, 78. zk.); martxoaren 27ko 12/2011 Legeak, kalte nuklearren eta gai erradioaktiboek eragindako kalteen erantzukizun zibilar buruzkoak (2011ko maiatzaren 28ko BOE, 127. zk.); Ekonomia Jasangarrirako martxoaren 4ko 2/2011 Legeak (2011ko martxoaren 5eko BOE, 55. zk.); abenduaren 23ko 1738/2010 Errege Dekretuak, bioerregaien alorreko derrigorrezko helburuak ezartzen dituenak 2011, 2012 eta 2013 urteetarako (2010eko abenduaren 24ko BOE, 312. zk.); otsailaren 5eko 104/2010 Errege Dekretuak, gas naturalaren sektorean azken baliabideko horniduraren abiaraztea arautzen duenak (2010eko otsailaren 26ko BOE, 50. zk.); abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, zenbait lege aldatzen dituenak, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko (2009ko abenduaren 23ko BOE, 308. zk.); ekainaren 19ko 1011/2009 Errege Dekretuak, Hornitzailez Aldatzeko Bulegoa arautzen duenak (2009ko ekainaren 20ko BOE, 149. zk.); ekainaren 19ko 1011/2009 Errege Dekretuak, Hornitzailez Aldatzeko Bulegoa arautzen duenak (2009ko maiatzaren 7ko BOE, 111 zk.); otsailaren 23ko 1/2009 Errege Lege Dekretuak, telekomunikazio arloko premiazko neurriei buruzkoak (2009ko otsailaren 24ko BOE, 47. zk.); uztailaren 2ko 12/2007 Legeak, Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzen duenak, Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2003ko ekainaren 26ko 2003/55/CE Zuzentzaurara, gas naturalaren barne-merkatutarako arau komunei buruzkora, egokitze aldera (2007ko uztailaren 3ko BOE, 158. zk.); ekainaren 23ko 7/2006 Errege Lege Dekretuak, energia-sektorean premiazko neurriak ezartzen dituenak (2006ko ekainaren 24ko BOE, 150. zk.); otsailaren 24ko 4/2006 Errege Lege Dekretuak, Energia Batzorde Nazionalaren eginkizunak aldatzen dituenak (2006ko otsailaren 28ko BOE, 50. zk.); azaroaren 18ko 24/2005 Legeak, produktibitatea sustatzeko erreformei buruzkoak (2005eko azaroaren 19ko BOE, 277. zk.); martxoaren 11ko



esanguratsuak egin zaizkio Europako araudian —non oinarrian gas naturalari, ez PGLari, buruzko gaiei heltzen baitzaie— xedatutakora egokitzeko<sup>4</sup>.

Hala, gasaren sektorea zerbitzu publiko gisa zuen sailkapena galdu, eta sektoreko jarduerak Estatuaren alde erreserbatuak egoteari uzten diote<sup>5</sup>. Dena dela, interes orokorreko jardueratzat jotzen dira.

Aipatutako Legeak PGL kanalizatua hornitzeko jardueren emakida-araubidea iraungiarazi zuen; ondorioz, emakidak automatikoki ordezkatu ziren emakida jaso zuten jarduerak gauzatzeko gaitzen duten baimen administratiboekin<sup>6</sup>.

Legearen III. tituluak «Petroliotik eratorritako produktuen merkatu-antolamendua» jasotzen du (37tik 53rako artikulua). III. tituluko III. kapituluak PGLei aplika dakiekeen berariazko araubidea jasotzen da (44 bisetik 48rako artikulua).

IV. tituluak «gas-erregaien kanalizazio bidezko hornikuntzarako antolamendua» jasotzen du (54tik 102rako artikulua). Titulu bereko I. kapituluak (54. artikulua) ezartzen duenez, arautze hori ez da aplikagarria PGLen kasuan<sup>7</sup>. Edonola ere, Legearen 94. artikulua xedatzen du Administrazioak finkatuko dituela PGL kanalizatuen salneurriak.

**10.** Badira, halaber, kontu hau bera arautzen duten beste zenbait arau ere, nahiz eta garrantzi gutxiagokoak izan.

- Irailaren 11ko **1085/1992 Errege Dekretua**, petrolioaren gas likidotuak banatzeko jardueraren Erregelamendua onartzeko dena. Otsailaren 26ko 197/2010 Errege Dekretuak aldatzen du, hidrokarburoen sektoreari dagozkien

---

5/2005 Errege Lege Dekretuak, produktibitatea sustatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko premiazko erreformei buruzkoak (2005eko martxoaren 14ko BOE, 62. zk.); abenduaren 30eko 62/2003 Legeak, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurriei buruzkoak (2003ko abenduaren 31ko BOE, 313 zk.); maiatzaren 23ko 13/2003 Legea, lan publikoen emakida-kontratuak arautzen dituen (2003ko maiatzaren 24ko BOE, 124 zk.); abenduaren 30eko 53/2002 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzkoak (2002ko abenduaren 31ko BOE, 313. zk.); abenduaren 27ko 24/2001 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzkoak (2001eko abenduaren 31ko BOE, 313. zk.); urriaren 6ko 10/2000 Errege Lege Dekretuak, nekazaritza-, arrantza- eta garraio-sektoreak bultzatzeko premiazko neurriei buruzkoak, (2000ko urriaren 7ko BOE, 241. zk.); ekainaren 23ko 6/2000 Errege Lege Dekretuak, ondasun-eta zerbitzu-merkatuetan lehia areagotzeko premiazko neurriei buruzkoak (2000ko ekainaren 24ko BOE, 151. zk.); abenduaren 29ko 55/1999 Legeak, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurriei buruzkoak (1999ko abenduaren 30eko BOE, 312. zk.); apirilaren 16ko 6/1999 Errege Lege Dekretuak, Liberalizatzeko eta Lehia Areagotzeko Premiazko Neurriei buruzkoak (1999ko apirilaren 17ko BOE, 92. zk.); abenduaren 30eko 50/1998 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzkoak (1998ko abenduaren 31ko BOE, 313. zk.).

<sup>4</sup> Uztailaren 2ko 12/2007 Legea, urriaren 7ko 34/1998 Hidrokarburoen Sektoreko Legea aldatzen duena, Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2003/55/EE Zuzentaraura, gas naturalaren barne-merkatutarako arau komunei buruzkora, egokitzeko.

<sup>5</sup> Abenduaren 22ko 34/1992 Legeak, Petrolioaren Sektorea Ordenatzekoak, jardueroi buruz adierazitakoarekin bat etorritik eta hura mantenduz. (1992ko abenduaren 24ko BOE, 308. zk.).

<sup>6</sup> Ikus 34/98 Legearen seigarren xedapen gehigarria.

<sup>7</sup> 54. artikulua hau adierazten du: «Petrolio-gas likidotuei ez zaie titulu honetan xedatutakoa aplikatuko, III. tituluaren xedatutakoak eraentzen baititu».



xedapen jakin batzuk moldatuz, abenduaren 22ko 25/2009 Legean (zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldarazten dituen) xedatutakora egokitzeko<sup>8</sup>;

- Uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua, gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG 01-11 argibide tekniko osagarrii buruzko Erregelamendu teknikoa onartzen duena; eta PGL-instalazioetan aplikagarria dena dekretuaren bigarren artikuluan xedatutakoari jarraiki; izan ere, arauan aplikazio-eremua zehazten baita artikulua horretan (2.1.b artikulua, PGL-ontzien biltegi eta hornitegiak)<sup>9</sup>;

- **1998ko uztailaren 16ko Agindua**, petrolio-gas likidotuen zerga aurretiko salmenta-prezioak automatikoki ezartzeko sistemaren merkaturatze-kosteak eguneratzen dituen eta hornikuntza jakin batzuk liberalizatzen<sup>10</sup>;

- **Azaroaren 14ko ITC/3292/2008 Agindua**, kanalizazio bidezko petrolio-gas likidotuen zerga aurretiko salmenta-prezioak automatikoki ezartzeko sistema aldatzen duena eta formula bat ezartzen duena, kostuen eta produktibitate-etekinen bilakaeraren adierazgarri diren parametroen arabera, merkaturatze-kostuak urtero berrikusteko<sup>11</sup>.

## V. Petrolio-gas likidotuen (PGL) merkatua

### 1. PGLaren definizioa eta banaketa-araubidea

**11.** PGLak petrolio gordinetik edo gas naturaletik lortutako hidrokarbuero arinen frakzioak dira, nagusiki, propanoa (C<sub>3</sub>H<sub>8</sub>) eta butanoa (C<sub>4</sub>H<sub>10</sub>). Temperatura eta presio atmosferikoan lortzen dute gas-egoera eta presio erlatiboki baxuaren pean igarotzen dira egoera likidora; propietate horri esker, presio-ontzietan bildu eta garraiatu daiteke. Orobat, bero-ahalmen handia dute.

**12.** 34/98 Legearen 44 bis artikulua honako hauek identifikatzen ditu PGL-horniketari lotutako jarduera gisa: PGLen ekoizpena, erosketak, komunitate barneko elkartrukea, inportazioa eta esportazioa; biltegiratzea, nahastea eta

<sup>8</sup> Irailaren 11ko 1085/1992 Errege Dekretua, petrolioaren gas likidotuak banatzeko jardueraren Erregelamendua onartzeko dena (1992ko urriaren 9ko BOE, 243. zk.). Aplikagarria 34/1998 Legearen bigarren behin-behineko xedapenari jarraiki, zeinak, arau berriak eman bitartean, gaiaren inguruko erregelamendu aplikagarriak aplikatzea mantentzen baitu.

<sup>9</sup> Uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua, gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta 01etik 11rako ICG argibide tekniko osagarrii buruzko Erregelamendu teknikoa onartzen duena (2006ko irailaren 4ko BOE, 211. zk.).

<sup>10</sup> 1998ko uztailaren 16ko Agindua, petrolio-gas likidotuen zerga aurretiko salmenta-prezioak automatikoki ezartzeko sistemaren merkaturatze-kostuak eguneratzen dituen eta hornikuntza jakin batzuk liberalizatzen (1998ko uztailaren 18ko BOE, 171. zk.).

<sup>11</sup> ITC/3292/2008 Agindua, azaroaren 14koa, kanalizazio bidezko petrolio-gas likidotuen zerga aurretiko salmenta-prezioak automatikoki ezartzeko sistema aldatzeko dena, (2008ko azaroaren 17ko BOE, 277. zk.).



ontziratzea; garraioa; handizkako salmenta; xehekako salmenta; eta PGL-horniketari lotutako instalazioak instalatu, mantendu eta berrikustea.

PGLak ontziraturik zein ontziratuta gabe, soltean, hornitu daitezke.

Handizkako horniketatzat hartzen da azken kontsumitzaile edo erabiltzailea hornitzen ez duen hura.

Xehekako horniketatzat jotzen da azken kontsumitzaile edo erabiltzaileari saltzea.

**13. Propano** (PGL) gehiena soltean banatzen da, udalerrietako tangak betetzen dituzten zisterna-kamioien bitartez. Azken erabiltzaileari aldirietan egon ohi diren tanga horietatik hornitzen zaio gasa; hain zuzen, aireko eta lurpeko hodiz osatutako kanalizazio-sistema baten bidez.

Beste energia-aukerak gorabehera, PGL kanalizatuaren hornikuntzak, bere ezaugarriak direla eta, gas naturalaren ordezkoko hautabidea eskaintzen die erregai horren saretik urrundutako herri txiki eta hirigune sakabanatuak, etxeko eta komertzioetako kontsumoa ase dezaten.

**14.** Aplikatu beharreko araudiari buruzko idaz-zatian adierazi den bezala, gas-sektoreari ez zaio zerbitzu publiko izaera aitortzen. Dena dela, 34/98 Legeak araututako jarduerak interes orokorreko jardueratzat jotzen dira<sup>12</sup>.

**15.** Kanalizazio bidezko PGL-horniketaren jarduera **liberalizatu gabe dago**; beraz, **banaketa-sarearen titularra den enpresa banatzaileak** hornitzen ditu udalerriko bezero guztiak, **araututako prezioetan**.

Esan liteke bezeroak gatibu direla, ezin baitute beren buruz erabaki gas propanoaren ordezkoko nagusia litzatekeenera, hau da, gas naturalera, aldatzea. Nolanahi ere, gas propanoz hornitzeko instalazioen enpresa titullarrak **eskubidea** du beroiek gas naturalarekin erabili ahal izateko aldatzeko —betiere, segurtasun-baldintza tekniko aplikagarriak betetzen baditu—<sup>13</sup>.

Horrenbestez, azken erabiltzailearentzat gas naturala ez da PGLa berehala ordezkatu dezakeen hautabidea; aldiz, udalerrri mailako jardunbide global bat behar da, gas naturalez hornitzeko aukera emango duen instalazio bat ezarri ahal izateko.

<sup>12</sup> 34/1998 Legearen zioen azalpena. Halakotzat jotzen zituen jadanik abenduaren 22ko 34/1992 Petrolioaren Sektorea antolatzeako Legeak(1992ko abenduaren 24ko BOE, 308 zk.), 1998ko urriaren 8ko 34/1998 Legeak indargabetu zuenak.

<sup>13</sup> 34/1998 Legeko 46. bis artikulua, 8. zenbakia. Horretarako, dagokion baimena eskatu beharko dio Administrazioari eta gas naturala banatzeko instalazioen inguruan xedatutako guztiari men egin.





## 2. PGL kanalizatuaren salneurriak

16. 34/98 Legearen 94. artikulua PGLaren tarifak arautzen ditu, adieraziz Industria Ministerioak premiazko xedapenak eman ahal izango dituela PGLaren salneurriak finkatzeko; hain zuzen ere, «tarifa eta salneurri baliokidetasun zehatzak edo, hala badagokio, beroiek automatikoki ezartzeko eta eguneratzeko sistema bat ezartzeko, petrolio-gas likidotua hornitzeko jardueren esparrua eraentzen duen lege-garapenak ezarritako baldintzetan».

Beraz, kanalizatutako PGLaren tarifak guztiz araututa daude eta administrazioak ezartzen ditu.

Hala, administratiboki finkatzen dira, bai azken bezeroentzako salneurriak, bai eta jarduerari aitortutako merkaturatze-kosteak ere, Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenen bitartez.

### A. Kontsumitutako gasaren neurketa

17. Gas kanalizatuaren erabiltzaileek homologatutako kontagailu bat dute instalazio hartzailearen hasieran, igarotako gas-bolumena (m<sup>3</sup>) neurtzen duena. Kontagailuak neurtutako aldiari dagokion gas-bolumenaren kontsumoa lortu ondoren, masa-unitateetara (kg) bihurtu behar da, hilerio BOEn argitaratutako gas propanoen salneurriak zuzenean aplikatu ahal izateko. Gasa kg-tara bihurtzeko, kontsumitutako m<sup>3</sup>-ak bihurketa-faktore deitutakoarekin biderkatu behar dira; horrela, kontsumitutako gas kiloen zenbatekoa lortzen da<sup>14</sup>.

### B. Prezioak zehazteko formula

18. PGL kanalizatuaren salneurriak finkatzeko gaur egun indarrean dagoen formula, ITC/3292/2008 **Aginduak** ezarri zuen<sup>15</sup>. Aginduak formula bat ezarri zuen urtero —uztailero— merkaturatze-kosteak kostuan eta produktibitate-etekinen bilakaeraren parametro adierazgarrien arabera berrikusteko.

Aginduaren arabera, formula hau da indarrekoa —ez baitu aldaketarik jasan 2008az geroztik— publikoari saltzeko PGL kanalizatuaren zerga aurretiko salneurri maximoak zehazteko:

<sup>14</sup> Bihurketa faktorearen balioa faktura guztietan zehazten da eta Energia zuzendariaren 2003ko ekainaren 9ko Ebazpenak arautzen du. Ebazpenean propano-gas kanalizatutako kontagailuak irakurtzean metro kubikoak kilogramo bihurtzeko faktoreak finkatzen dira, horretan oinarrituta fakturazioa egiteko (uztailaren 14ko EHAA, 137. zk.). Horretarako, hiru eremutan zatitzen da EAE, altueraren eta batezbesteko tenperaturaren arabera, eta lau presio-maila zehazten dira gas-horniketarako (37, 150, 400 eta 800 g/cm<sup>2</sup>).

<sup>15</sup> Azaroaren 14ko ITC/3292/2008 Agindua, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioarena, kanalizazio bidezko petrolio-gas likidotuen zerga aurretiko salmenta-prezioak automatikoki ezartzeko sistema aldatzeko dena (azaroaren 17ko BOE, 277. zk.).



$$P = CF_n + C$$

$CF_n$  lehengaiaren (nazioarteko kotizazioan) eta pleitaren terminoak, «n» hilabeteari dagozkionak, batuz lortzen da eta euro/kg unitatean ematen da.

C jarduerari aitortzen zaizkion merkaturatze-kostuak dira.

Merkaturatze-kostuak (C) termino finko batek (zenbat euro bezeroko eta hileko) eta termino aldagarri batek (zenbat euro-zentimo/kiloko) osatzen dute.

Formula horren bitartez, azken erabiltzaileei PGLa saltzeko prezioak kalkulatu dira hilerok; ondoren, BOEn argitaratu dira Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Orokorraren Ebazpenen bitartez. Hil bakoitzeko hirugarren asteartean sartzen dira indarrean.

### C. PGL kanalizatuaren prezioak 2009-2013 aldian

19. Ondoko koadroan BOEn argitaratutako 2009-2013 aldiko abenduko PGL-salneurriak jaso dira.

Cuadro 1. Evolución precios GLP canalizado. (Diciembre)		
Año	Término variable cent./kg	Término fijo €/mes cliente
2009	82,342	1,49
2010	106,423	1,51
2011	98,2297	1,55
2012	117,6724	1,57
2013	119,2547	1,58

Iturria: BOE. Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak.


Salneurrien termino aldagarria, merkaturatze-kostuen zati aldagarriaren eraginpean egoteaz gain, lehengaiaren nazioarteko kotizazioaren —hau da, butanoaren eta propanoaren prezioen— eta pleitaren eraginpean ere badago. Termino finkoa uztailean aldatzen da; hain zuzen, jarduerari aitortutako merkaturatze-kostuen urteroko berrikuspina egiten denean.

Ondorengo irudian PGL kanalizatuaren termino aldagarriaren hileko aldakuntza jasotzen da 2010-2013 aldirako.





**Gráfico 1. Variación mensual del término variable (c€/kg) del GLP canalizado. (%)**



Iturria: Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak.

1. grafikoan ikus daitekeenez, PGL kanalizatuaren salneurri arautuen termino aldagarriak aldaketa handiak jasaten ditu, goranzkoak zein beheranzkoak, hil batetik bestera. Aztertutako lau urteetan, honako hil hauetan egon dira prezio-gorakada nabariena aurreko hilaren aldean: 2010eko urtarrilean eta abenduan (% 23,19 eta % 13,33, hurrenez hurren), 2012ko otsailean eta martxoan (% 10,42 eta % 10,64, hurrenez hurren) eta 2013ko abenduan (% 15,72)<sup>16</sup>. 2010--2013 aldia osorik hartuz gero, **lau urte horietan % 41,23 garestitu da salneurrien termino aldagarria eta % 6,04 termino finkoa.**

20. 2011ko abenduaren eta 2012ko abenduaren artean, kanalizazio bidezko PGLaren salneurri arautuaren **termino aldagarria % 19,79 hazi zen** (98,2297 zentimo/kg-tik, 117,6724 zentimo/kg-ra). Bestalde, termino finkoa % 1,29 hazi zen (1,55 €/bezeroko/hileko izatetik, 1,57 €/bezeroko/hileko izatera)<sup>17</sup>.

21. Energia Batzordeak PGL kanalizatuaren 2013ko merkatua ikuskatzeko egindako txostenean, gas naturalerako eta PGL kanalizaturako araututako tarifen salneurriak alderatu ziren, 9.000 kWh/urteko gas-kontsumoa duen kontsumitzaile-mota oinarritzat harturik.

Horrenbestez, agerian geratu zen gas naturalaren hornikuntzak lehiarako duen abantaila: % 30 merkeagoa da eta, beraz, 230 € aurreztarazi ditzake zerga

<sup>16</sup> Salneurri horiek Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Orokorrak aurreikusitako formularen bitartez lortzen dira eta PGL kanalizatuaren azken bezeroari aplikatzen zaizkio, edozein dela ere bere enpresa hornitzailea.

<sup>17</sup> Zuzeneko iturria: EHA. ENERGIA BATZORDE NAZIONALAK honako datu hau jaso zuen *Informe de supervisión del mercado minorista de GLP canalizado en España año 2012* agirian (2013ko ekainak 27, 3. or., [http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/HidrocarbGas/MMinorista/PA-supervision\\_GLP-2012.pdf](http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/HidrocarbGas/MMinorista/PA-supervision_GLP-2012.pdf), dokumentu honetan aipatutako orri guztien azken kontsulta-data 2014ko irailaren 15a da): 103,4815 euro-zentimo/kg-tik 109,9191 euro-zentimo/kg-ra.



aurretik, batez ere, gas naturalak PGLa baino kostu baxuagoa duelako nazioarteko merkatuetan<sup>18</sup>.

Aintzat hartzen baditugu energia-mota bakoitzari atxikitako kostuak, PGL kanalizatua oso kontsumo txikien kasuan (1.390 kWh-rainoko kontsumoetan) da gas naturalaren aldean lehiakorra, horniketa-tarifaren termino finkoa baxuagoa duenez (PGL kanalizatuaren kasuan, 1,58 €/hileko soilik)<sup>19</sup>.


### 3. PGL kanalizatuaren eskariaren azterketa

#### A. Gas kanalizatuaren sartze-maila

22. PGL kanalizatuaren eta gas naturalaren hornikuntza zenbateraino sartu diren aztertuz gero, 100 biztanle oinarri hartuta, hauek dira sartze-maila handiagoko autonomia-erkidegoak: Kantabria (34,94), Katalunia (29,27), Madril (27,84), Errioxa (25,94) eta Euskadi (25,21)<sup>20</sup>.

Ondoko grafikoa PGL kanalizatuak Euskadin duen sartze-maila irudikatzen da, lurralde historikoen arabera bananduta.

**Gráfico 2. Número de clientes de gas canalizado (GLP+GN) por 100 habitantes a 31 diciembre 2012**



Iturria: EBN. PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena. 2012.

<sup>18</sup> MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe de supervisión del mercado de GLP canalizado. Periodo: Año 2013, 2014ko irailaren 9, 21. or.* [http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/Informes/140909\\_Inf\\_Sup\\_Mercado\\_GLP\\_canalizado%202013.pdf](http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/Informes/140909_Inf_Sup_Mercado_GLP_canalizado%202013.pdf).

<sup>19</sup> *Ibidem*, 21. or.

<sup>20</sup> ENERGIAREN BATZORDE NAZIONALA. *PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena. 2012. urtea. 2013ko ekainaren 27,* [http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision\\_GLP-2012.pdf](http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision_GLP-2012.pdf).

2. grafikoan ikus daitekeenez, Euskadin 100 biztanletik 25,21 kanalizazio bidezko gas-hornikuntzaren (PGL kanalizatua edo gas naturala) bezero da; ratio altuena Gipuzkoakoa da, hain zuzen, 29,61 bezero 100 biztanleko.


## B. PGL kanalizatuaren eskaria

23. PGL kanalizatuari bagagozkio, 2012an, 270.130 t PGL kanalizatu saldurik, Estatuko eskari osoaren % 70 inguru bost erkidego hauetan metatu zen: Madril (% 20,59), Katalunia (% 13,33), Galizia (% 10,84), Gaztela eta Leon (% 9,41), Gaztela Mantxa (% 8,77) eta Euskadi (% 7,06)<sup>21</sup>.

2012ko abenduaren 31n, PGL kanalizatuaren bezeroen kopuru osoa 39.469 zen; hau da, % 0,71 txikiagoa 2011ko bezero-kopuruaren aldean.

Ondoko grafiko honetan lurralde historikoen arabera sailkatu da PGL-bezeroen banaketa.

**Gráfico 3. Distribución del nº de clientes de GLP canalizado a 31 diciembre 2012. País Vasco.**




Iturria: EBN. PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena. 2012.

Hurrengo grafikoan PGL kanalizatuaren bezero ratioa irudikatzen da, 100 biztanleko; hala, aukera ematen digu hiru lurraldeetako biztanle-kopuruaren arteko aldeak baztertu eta bezero-kopuruak alderatzeko.

<sup>21</sup> ENERGIAREN BATZORDE NAZIONALA. *PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena.* 2012. urtea. 2013ko ekainaren 27, [http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision\\_GLP-2012.pdf](http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision_GLP-2012.pdf).

**Gráfico 4. Ratio de clientes de GLP canalizado por 100 habitantes a 31 diciembre 2012**



Iturria: EBN. PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena. 2012.

PGL kanalizatuaren bezero-ratio handiena, 100 biztanleko, Gipuzkoan dago; bigarren postuan Araba dago, Euskadiko batez bestekotik oso urbil eta Estatuaren batez bestekoaren gainetik.

2012 urtearen amaieran, 600.156 bezero zeuden PGL kanalizatuaren horniketa arautuan Espainia osoan; hau da, 7.875 bezero gutxiago (-% 1,46) 2011ko urte-amaierako datuen aldean, 609.031 kontsumitzaile zeudenean<sup>22</sup>.

2013 urtearen amaieran, PGL kanalizatuaren horniketa arautuaren bezero-kopurua 585.370 zen; hau da, 20.286 bezero gutxiago (-% 3,35) 2012ko urte-amaieraren aldean, 605.656 kontsumitzaile zeudenean<sup>23</sup>.

PGL kanalizatuaren bezero-kopuruak azken bost urteotan izandako bilakaerari erreparatuz gero, leunki jaitsi dela ikus daiteke<sup>24</sup>.

#### 4. Merkatu-kuotak.

**24.** PGLaren sektorearen operadore nagusien zerrenda EBN ohiaren 2011ko otsailak 10eko Ebazpenean jaso zen, hain zuzen, ekainaren 23ko 6/2000 Errege Lege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako,

<sup>22</sup> ENERGIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Informe...*, 7. or., [http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision\\_GLP-2012.pdf](http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision_GLP-2012.pdf).

<sup>23</sup> MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe...*, 3. or. [http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/Informes/140909\\_Inf\\_Sup\\_Mercado\\_GLP\\_canal\\_izado%202013.pdf](http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/Informes/140909_Inf_Sup_Mercado_GLP_canal_izado%202013.pdf).


<sup>24</sup> *Ibidem.* 5. or. [http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/Informes/140909\\_Inf\\_Sup\\_Mercado\\_GLP\\_canal\\_izado%202013.pdf](http://www.cnmec.es/Portals/0/Ficheros/Energia/Informes/140909_Inf_Sup_Mercado_GLP_canal_izado%202013.pdf).

energia-sektoreetako operadore nagusien zerrendak ezarri eta argitaratzen dituen ebazpenean<sup>25</sup>.

PGL kanalizatua etxean erabiltzeko hornitzen da nagusiki; industriaren eskaria asetzeko, solteko PGLa hornitu ohi da, prezio askean.

Hurrengo koadroan PGL kanalizatua hornitzen duten Estatuko enpresen merkatu-kuotak zehazten dira.

**Gráfico 5. Cuotas de mercado por número de clientes de GLP canalizado en 2012 en el Estado**



Iturria: EBN. PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena. 2012.

**REPSOLEk nagusitasun-egoera** du PGL kanalizatuaren hornikuntza-merkatuan, bezeroen % 89,56rekin. Jarraian, CEPESA dago, bezeroen % 6,81rekin eta, ondoren, VITOGAS, bezeroen % 1,78rekin.

Euskadin, REPSOL da PGL-hornitzaile nagusia (Kanarietan izan ezik, berdin gertatzen da beste autonomia-erkidegoetan ere)<sup>26</sup>.

**25.** Euskadin banatzen den gas propano guztia REPSOLEk Santurtzin (Bizkaian) duen instalaziotik dator. Santurtzira bi eratarira iristen da: oliobidez, PETRONOREn findegian ekoiztutako produktua igortzen da, egoera likidoan ponpatua; eta, itsasoz, Bilboko Superportuko gas-ontzien kaian deskargatutakoa.

Santurtziko instalazioan, 2000 m<sup>3</sup>-ko hiru esfera handitan, 213 m<sup>3</sup>-ko bederatzitangatan eta 115 m<sup>3</sup>-ko bi tangatan biltegitratzen da propano komertziala.

<sup>25</sup> Energia Batzorde Nazionalaren 2011ko otsailaren 10eko Ebazpena, ekainaren 23ko 6/2000 Errege Lege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, energia-sektoreetako operadore nagusien zerrendak ezarri eta argitaratzen dituena. (2011ko apirilaren 27ko BOE, 100. zenbakia).

<sup>26</sup> ENERGIAREN BATZORDE NAZIONALA. *PGL kanalizatuaren txikizkako merkatuaren azterketa-txostena. 2012. urtea.* 2013ko ekainaren 27, [http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision\\_GLP-2012.pdf](http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/PA-supervision_GLP-2012.pdf).

Ondoren, propanoa udalerrietako tangetara eramaten duten zisterna kamioiak kargatzen dira egunero.


Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak txosten batean jakinarazi duenez, Arabako lurralde historikoan hiru operadorek hornitzen dute gas propano kanalizatua: **REPSOL**, **CEPSA** eta **NATURGAS-ek**<sup>27</sup>.

Aipatutako txostenaren arabera, REPSOL BUTANO S.A.-k 47 udalerriei banatzen zien propanoa (2.900 erabiltzaile); haien artean, Bastida 755 erabiltzailerekin.

CEPSAk 29 banaketa kudeatzen zituen, 1.150 erabiltzaile guztira.

NATURGAS ENERGÍAk Guardian besterik ez zuen gas propano kanalizatua banatzen, hain zuzen, 220 erabiltzaileri.

**Gráfico 6. Cuotas de mercado por nº de clientes de GLP canalizado en Álava**



Iturria: Araban gas propanoaren kontsumoak 2010eko urritik 2011ko otsailera bitartean izandako gorakadari buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Arabako lurralde-ordezkaritzarena.

Horrenbestez, **merkatu kontzentratua** da oso: hiru enpresa besterik ez du operatzen eta haietako bat, REPSOL BUTANO S.A., nagusitasun-egoera argian dago.

## 5. Propano kanalizatuaren horniketa-merkatua Bastidan.

**26.** Euskadin banatzen den ia gas guztia Santurtziko instalaziotik dator. Gasa banatzeko eta merkaturatzeko bi modu daude: ontziratutako produktu gisa (bonbonatan) ala soltean<sup>28</sup>.

<sup>27</sup> Araban gas propanoaren kontsumoak 2010eko urritik 2011ko otsailera bitartean izandako gorakadari buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Arabako lurralde-ordezkaritzarena.

<sup>28</sup> Espainiak PGL-kontsumoaren erdia inportatzen du gutxi gorabehera. Inportazio gehienak itsasontziz iristen dira. Estatuan PGLa biltegitatzeko eta ontziratzeke 21 zentro handi daude



**27.** Bastidari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Arabako lurralde-ordezkararen Ebazpenak, 1995ko martxoaren 29koak, energia hornitzeko PGL-gasaren banaketa-sare bat baliatzearen alde egiten du eta REPSOL enpresari esleitzen dio administrazio-emakida baten bitartez<sup>29</sup>.

Sare hori gas propanoa biltegitratzeko instalazioek (tangak) eta gasa azken kontsumitzaileari eramaten dioten gasbideek (aireko hodiak) osatzen dute.

Bastidan PGLa hornitzeko eta banatzeko administrazio-emakidak 75 urteko iraunaldia du.

34/98 Legea indarrean sartzearekin bat, onetsitako emakidak iraungi ziren eta baimen administratiboekin ordeztu ziren<sup>30</sup>.

Hori dela-eta, gaur egun, REPSOLek iraupen zehaztu gabeko baimen administratiboa du Bastidan PGLa banatzeko.

**28.** Bastidako PGL kanalizatuaren hornikuntza sare-industriaren adibide ohikoa da. Bi ezaugarri aipagarri agertzen ditu: alde batetik, ondasun hori (PGL kanalizatua) hornitu ahal izateko hasieran egin beharreko instalazioak kostu finkoetarako gastu handia eta herri eskupekoak erabiltzeko premia dakartza berekin; bestetik, halako ondasunen kontsumo eta hornikuntzak oinarritzko behar publikoei erantzuten diete<sup>31</sup>.

Halako industriak eskala-ekonomiak izaten ditu: hau da, kostu finkoak hain dira altuak, ezen epe-luzeko batezbesteko kostuak txikiagotzen baitituzte ekoizpena handitu ahala.

## **A. Eskariaren ikuspegitik.**

**29.** Gas propano kanalizatuaren azken kontsumitzaileak liberalizatu gabeko merkatu baten pean daude, non herri-administrazio eskudunak (Industria Ministerioak) ezartzen baititu salneurriak, eta ez dute aukerarik hornitzailez

---

soilik: findegietatik hurbil daudenak oliobideen bitartez jasotzen dituzte findegiko produktuak; kostaldekoak, aldiz, itsasontziz eta barnealdekoak, trenz edo kamioiez.

<sup>29</sup> Ebazpena, 1995eko martxoaren 29koa, Arabako lurralde-ordezkararena, Arabako Lurralde Historikoko Bastida udalerriko etxebizitzak eta merkataritzako guneak merkataritzako gas propanoz hornitu eta bertan gas propanoa banatzeko gas-erregaien zerbitzu publikoa egiteko administrazioemakida ematen duena. (1995 maiatzaren 31ko EHAA, 102 zk).

<sup>30</sup> Ikus 34/98 Legearen seigarren xedapen gehigarria

<sup>31</sup> Arabako lurralde-ordezkararen Ebazpenak, 1995ko uztailaren 17koak, REPSOL BUTANO S.A. enpresa baimentzen duenak Bastidan gas kanalizatua banatzeko sarearen instalazioak eraikitzeko, 30.225.050 milioi pezetako aurrekontua (181.656,21 €) onartzen zuen egitasmoa gauzatzeko. Ondoren, REPSOLi baimen gehiago eman zaizkio PGLa banatzeko sarea handiagotzeko (R2 sektorea familia bakarreko 65 etxebizitzentzako, San Gines urbanizazioa, El Frontin kalea, Vasco-Gallega de Construcciones SA-ren urbanizazioa, PERI eremua eta Vista Alegre urbanizazioa) eta, beraz, inbertsio berriak egin behar izan dira.





aldatzeko; izan ere, horniketa-sarearen titularra edo jabea den enpresa —kasu honetan, REPSOL— bera dute hornitzaile ere.

Benetan, monopolio-egoera batean aurkitzen dira, sare bakarra eta operadore bakarra berdindu direlako (gas naturalaren kasuan gertatu ez bezala, non kontsumitzaileek aukera baitute haien azken hornitzailea edo merkaturatzailea askatasunez hautatzeko).

## B. Eskaintzaren ikuspegitik.

**30.** Merkatu horretan, emakida esleitzeko garaian sortu zen enpresen arteko lehiarako aukera; ondoren, emakida horrek bide eman zion Bastidan PGLa banatzeko sarea kudeatzeko baimenari. Behin baimena esleiturik, merkaturatzaile baimendutako banatzailearentzat, REPSOLentzat, erreserbatua geratu zen.

PGL kanalizatuaren Bastidako operadorea, REPSOL, *de factoko* monopolio-egoeran dago. Beraz, ez du sustagarririk kontsumitzaileei kalitate handiagoko zerbitzuak emanez lehiatzeko.

REPSOL enpresak ez ditu azken erabiltzailearentzat ezarriko diren salneurriak erabakitzen. Gasaren handizkako merkaturatzailearentzat salneurriak nazioarteko «spot» merkatuetan finkatzen dira.

PGL kanalizatuaren azken kontsumitzailearentzako salneurria administrazioak zehazten du, hilerok, eta BOEn argitaratzen da.

Horrenbestez, prezio bera du, edozein dela ere enpresa hornitzailea.

Lehiaren muga horiek justifikatuta leudeke soilik, baldin eta araudi ezak kontsumitzailearentzat garestiegiak diren prezioak ekarriko balitu. Legegileak kontu hori aztertu behar du halako arauak emateko garaian. Hala, aintzat hartu behar du premia hori dela zerbitzua ematea (interes orokorrekotzat jo daiteke) eta premia hori honako hauekin erlazionatu behar du: zerbitzu-ematea bermatzeko, lehiari mugak jartzeko beharrezkin; finkatutako helburua lortzeko, muga horiek izan beharreko proportzionaltasunarekin; eta zerbitzuaren izaera ez diskriminatzailearekin.

**31.** PGLa ordezkaturiko duten produktuak erabiltzeko aukerari dagokionez, hautabide posibleen bideragarritasuna aztertu beharko litzateke. Aukera egiantzekoena gas naturalera jotzea dirudi.

Bideragarria eta azken kontsumitzailearentzat ekonomikoki abantailatsuagoa balitz gas naturalera jotzea —eta hala ondorioztatzen da txosten honetan aipatutako bi azterlanei erreparatuz gero—, orduan, araudiak aukera jasotzen du REPSOLek administrazioari dagokion baimena eskatzeko, PGL kanalizatua hornitzeko sarea gas natural kanalizatua hornitzeko sare bihurtu dezan<sup>32</sup>.

<sup>32</sup> 34/1998 Legearen 46.bis.8. artikulua. Solteko PGLa banatzeko instalazioen tituludunek dagokion baimena eskatu beharko diote administrazio baimen-emaitzari, instalaziook gas naturalarekin erabili ahal izateko moldatzeko. Orobat, aplikagarriak diren segurtasun-baldintza



**32.** Ondorioz, PGLaren erabilerak merkatu biziki arautua sortzen du, sartzeko oztopo handiak agertzen dituena (banaketa-sare bat eraikitzeagatik kostu finko altuak), non baimendutako operadorea *de factoko* monopolio-egoeran aritzen baita eta azken kontsumitzaileen salneurriak administrazioak finkatzen baititu. Hori dela-eta, kontsumitzaileentzat onuragarriagoak liratekeen beste hautabideen bideragarritasuna aztertzea da aukera.

## **VI. Gas-horniketa eta -banaketa Bastidan.**

### **1. Bastidako fakturazio-sistemaren azterketa.**

**33.** LEAk Bastidako gas-fakturen prezioa dela kausa, kontsumitzaileak ezarritako kexei buruz Eusko Jaurlaritzak egindako txosten teknikoen kopia eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari; bai eta, orobat, txostenak bermatzeko dokumentazio osagarria ere. Industriako lurralde-ordezkaritzak gasaren fakturari eragiten dioten parametroak egiaztatzeko egindako lana aurkeztu zuen: kontagailuen funtzionamendua, hornitutako gasaren kalitatearen ohiko analisiak, gasaren kalitatea aztertzeko analisi gehigarriak laborategi independente batean, 2010eko urritik 2011ko otsailera bitarteko meteorologia-datuak, banatzaile gisa Repsol duten udalerrietako banakako kontsumoak eta banatzaile gisa CEPSA eta NATURGAS duten udalerrietako kontsumoak. Sailak honako hauek ondorioztatu zituen:

- Kontagailuen matxura masiboa baztertzeko da.
- Ez da REPSOL BUTANO S.A.-ren fakturretan akatsik ikusi (aplikatutako salneurriak, zuzenketa-faktoreak, fakturazio-aldiak...).
- Repsolek tangak eta zisterna-kamioiak betetzeko duen instalazioan egindako gas-analisiak adierazten dutenez, banatutako propanoa eskatutako zehaztapenak betetzen ditu konposizioari, kalitateari eta bestelako ezaugarri fisiko-kimikoei dagokienez.
- Laborategi independente batek gauzatutako analisiak erakusten dutenez, gasak kasu guztietan betetzen zituen araututako kalitate-mailak.
- Gasaren ustezko kalitate txarrak gehiegizko kontsumoa eragin izan balu, arazo hori, Arabako udalerrietan ez ezik, beste zenbait udalerrietan ere agertuko zen; izan ere, gas hori Repsolen Santurtziko fabrikatik dator eta instalazio horrek Euskadi, Kantabria, Nafarroa eta Errioxaren gainontzekoan, Burgoseko iparraldean, Aragoiko zati batean eta, sarri, Frantzian ere hornitzen du propanoz.
- Bakarkako kontsumoak izugarri aldatzen dira pertsonaren eta udalerriaren arabera; gainera, oso desberdinak izan daitezke erabiltzaile berak neguko hil ezberdinetan kontsumitutako gas propano-kopuruak. Zalantzan jarritako


---

teknikoak bete beharko dituzte eta gas naturala banatzeko instalazioak eraentzen dituzten arau-xedapen guztiei men egin.

kontsumoak ez dira ezinezkoak; are gehiago, beste urteetan kontsumitu dira halako gas-kopuruak, bai eta handiagoak ere.

Hurrengo grafiko honetan 2009-2013 aldiko abenduan PGL kanalizatuaren termino aldagarriak urtetik urtera izandako aldakuntza jaso da. 2010eko abendua (Bastidako kontsumitzaileen kexak sortu zirenekoa) 2009ko abenduarekin alderatuz gero, ikus daiteke termino aldagarriaren prezioa % 29,25 igo zela epe horretan.

**Gráfico 7. Variación interanual precio GLP canalizado. (Diciembre)**



Iturria: BOE: Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak.

Esan bezala, Ministerioak finkatzen ditu tarifak. Aztertutako denboraldian tarifek izandako garestitzea eta Balio Erantsiaren Zergaren (BEZ) karga-tipoaren igoera (% 16tik, % 18ra) batera gertatu ziren.

Espedienteko datuetatik ezin da ondorioztatu, beraz, lehiari inondik eragin zaionik.

## **2. Bastidako udalak PGL-hornikuntzaren alde hartutako erabakia.**

**34.** 1995ean energiaz hornitzeko PGL kanalizatua erabiltzea erabaki zen Bastidan. Espedientean ez ziren jaso administrazioa erabaki hori hartzera eramane zuten arrazoiak.

Udalbatzak erabaki zuen zerbitzu hori ez zuela bere bitartekoekin beteko eta berau externalizatzeko lehiaketa bat deitu zuen. Erabaki horrekin, merkatuko lehia mugatuari ireki zitzaion zerbitzu-ematea, eta REPSOL enpresari esleitu zitzaion emakida. Ondoren, lege-aldaketaren eraginez, enpresa emakidadunaren aldeko baimen bihurtu zen emakida hori.



**35.** Une honetan, ez dirudi zentzu handirik duenik PGL kanalizatua hornitzen duten beste enpresei baimen gehiago ematea zerbitzu hori eman dezaten; izan ere, salneurriak administrazioak finkatzen dituzenez, ezinezkoa da enpresen arteko lehia, arauzko mugak direla medio.

Dena dela, aztertu daiteke ea eremu berean energia-hornitzeko sistema desberdinak egon daitezkeen. Energia Batzorde Nazionalak gairi buruz duen iritzia azaldu du honezkero<sup>33</sup>.

*Gas naturala banatzeko* instalazioen araubide juridikoa 34/98 legearen IV. tituluaren V. kapituluaren arabera da.

Kasu honetan, alde aurreko baimen bat behar da instalazioak eraiki, egokitu, ustiatu, itxi eta transmititzeko eta baimen hori ez da, inondik ere, erabiltzeko eskubide eskusiboen emango; beraz, diskriminazio ezaren, gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioetan oinarrituz, jabeek instalazioak erabiltzeko baimena eman behar dute ordainsari bat jaso ondoren.

Azpimarratu behar da, dena den, Legearen 73. artikulua, «Gas naturala banatzeko instalazioen baimen»-arabidea ezartzen duenak, honako hau xedatzen duela 7. atalean: «ahal dela, eremu horretako enpresa banatzaileari esleituko zaizkio banaketa-instalazioak eraikitzeko eta ustiatzeko baimenak. Ez bada eremu horretan banatzailearik, orduan, monopolio naturalaren printzipioei

---

<sup>33</sup> ENERGIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Informe sobre consulta una Comunidad Autónoma sobre compatibilidad de redes de distribución*. 2008ko otsailaren 28, [http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/cne57\\_08.pdf](http://www.cne.es/cne/doc/publicaciones/cne57_08.pdf).

2007ko azaroaren 29an, autonomia-erkidego batek kontsulta egin zion Energia Batzorde Nazionalari (EBN) eremu berean kanalizazio bidezko bi gas-erregai banatzeko baimen administratiboak ematearen inguruan. Egitatezko baldintza honako hau zen: «(...) gasa banatzen duen enpresa bati alde aurreko baimen administratiboa eman zitzaion, Ibizako hainbat udalerrietan, aire propanatuaren bitartez gas kanalizatua hornitzeko sareak gauzatzeko. Enpresak epe barruan aurkeztu zituen sare-egitasmoak. Hala ere, egitasmo horiek baimentzeke daude eta, beraz, ez dira oraindik sareak eraikitzeko lanak hasi». Ondoren, «beste enpresa banatzaile batek administrazio-baimena eskatu du PGLa banatzeko sareak gauzatzeko; hain zuzen, lehenengo enpresaren baimenaren barruan sartzen den udalerri bateko urbanizazio batean». Erkidegoaren aburuz, baimenok ez dira bateraezinak 34/98 Legearen —zehazki, 46 bis artikulua— arabera; dena dela, zalantzak adierazten ditu Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako muga kasu honetan aplikagarria ote den inguruan.

EBNk zera erabaki zuen, «petroliotik eratorritako produktuen (solteko PGLaren kanalizazio bidezko banaketa) eta gas erregaien kanalizazio bidezko horniketaren (gas naturala, aire propanatua eta antzeko gas erregaiak) arteko erregulazio-desberdintasunei dagokionez, agerian utzi behar da bi erregaiak titulu desberdinen eraginpean daudela 34/1998 Legearen barruan: horrela, III. tituluak eraentzen du solteko PGLaren kanalizazio bidezko hornikuntza eta IV. tituluak, berriz, gas erregaien kanalizazio bidezko hornikuntza.»

Plazaratutako kontsultari erantzuten dion txostenak honako hau ondorioztatu zuen: «Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/98 Legean, 55., 73. eta 74. artikuluetan eta Hogeita Hirugarren Xedapen Gehigarrian gas-naturala eta aire propanatua banatzaile buruz xedatutakoek ez dute bazter uzten administrazio-baimenak ematea, solteko PGLa kanalizazio bidez hornitzeko instalazioen gisara, bestelako jardura bat gauzatzeko diren instalazioentzako»



erreparatuko zaie: garraioa eta banaketa, sare bakarra eta gas-sistemari gastu txikiena dakarkion egikaritzea.»

Hogeita hirugarren xedapen gehigarriak adierazten du, halaber, «ezingo direla baimen berriak esleitu banaketa-instalazioak eraikitze» baimen administratibo batean zehaztutako gas-banaketarako eremuan; hala, legedian eta baimen administratiboan ezarritakoari jarraiki, interes orokorreko zerbitzuaren betebeharrak bete eta sareak hedatzearen alde egin behar du<sup>34</sup>.

Hori guztia dela-eta, Bastidako udalaren hautabidea beste zenbait aukeren bideragarritasuna aztertzea litzateke; hain zuzen ere, aukerak zeinen arautzeak enpresa merkaturatzaileen salneurri eta baldintzen arteko lehiari bide eman eta, ondorioz, kontsumitzailearentzat abantailatsuagoak izan baitaitezke.

## VII.- Ondorioak

**LEHENENGOA:** PGL kanalizatuaren merkatua araupetua dago eta Administrazioak finkatzen ditu azken kontsumitzailearentzako prezioak. Energia Politiken eta Meategien Zuzendaritza Orokorrak hilerok argitaratzen du PGLaren salneurri arautua. Salneurriaren termino aldagarriak aldaketa handiak izaten ditu eta horrek kontsumitzailearen fakturari eragiten dio.

Aldaketak ezin zaizkio operadoreari egotzi.

Direnak direla, aintzat hartu behar da, azkeneko lau urteetan, PGL kanalizatuaren salneurriaren termino aldagarriak % 41,23 egin duela gora eta termino finkoak % 6,4.

**BIGARRENA:** Azterketa ekonomikoek agerian uzten dute, gaur egun, energiaren hornitzeko PGLa aukeratzea oso kontsumo baxuetarako dela hautabide lehiakorra: izan ere, salneurriaren termino aldagarriari dagokionez, nazioarteko merkatuetan merkeagoa da gas naturala, PGLa baino; eta hornidura-tarifaren termino finkoari dagokionez, berriz, baxuagoa da PGLarena, gas naturalaren baino.

---

<sup>34</sup> Konstituzio Auzitegiak agindu hori interpretatu zuen ekainaren 19ko 135/2012 epaian, txosten honetan aipatutako aginduaren eta xedapenaren aurka Madrilgo Erkidegoak aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko helegitea ezetsi zuenean. Azpimarratu behar da, Konstituzio Auzitegiak ebatzitako kasuan, gas naturalari zegokion bigarren baimen baten eskaerak sortzen zuela arazoa eta, beraz, ez dagoela hemen plazaratutako egitatezko baldintzarekin antzekotasunik; nolahi ere, Auzitegiak jo zuenez, agindua ez da enpresa-askatasunaren aurkakoa, izan ere, nahiz eta eremu batean beharrezko inbertsioak egin dituzten enpresak lehenetsi, eskubide horrek ez baitakar nahitaez enpresa hori baimentzeko eta, hortaz, «beste enpresei aukera oro ukatzeko» betekizuna. «Eremu jakin baterako baimendua izan den enpresak abantaila ez erabatekoa du baimendutako eremuaren inguruko eragin-eremuetarako ere, halako moldez, ezen eskusibotasuna baino, lehentasuna baitu baimen berriak lortzeko. Horregatik, neurri horrek ez du merkaturako sarbidea eragozten, ez duelako galarazten lehia askeko goieran alde aurreko baimen berriak esleitzea...».



**HIRUGARRENA:** Bastidan PGL kanalizatuaren bidez baino ez da hornitzen energia. Hori horrela izanik ere, ez dago legezko oztoporik energiaren hornitzeko beste hautabide batzuk aztertzeko; hain zuzen ere, hautabideak zeinek, merkaturatzaileen arteko lehia sustatzearen ondorioz, kontsumitzaileentzat abantaila handiagoak ekar baitezakete. Hautabideon bideragarritasuna globalki aztertu beharko da; izan ere, mugatuagoak dira kontsumitzaileak indibidualki dituzten aukerak.

KONTSEILUKO BURUA  
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA  
IBON ALVAREZ CASADO

KIDEA  
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA  
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA